

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Kaixo irakurle!! EINA enpresa gara, aurten sortu eta zabaldu dugun enpresa txiki bat. Gure produktu garrantzitsuena, Wear me aplikazioa da, guk pentsatu eta garatu duguna, eta hori aurkeztera gatoz.

Wear me! outfitak egiten denbora aurrezteko eta zure armairua kudeatzeko laguntzen dizun aplikazioa da.

Aplikazioa deskargatuta, zure armairuan duzun arropa guztia eskaneatuta, armairu birtual bat sor dezakezu, horrela, zure arropa argi eta garbi ikusiz. Janzterako garaian, egoera aukeratuz, outfit edo janzkera egokiena aurkeztuko dizu aplikazioak, zure arropa kontuan hartuz, noski. Azkenik, arropa kontsumoa jeistearren, eta gure planeta toki garbiago bat izaten saiatuz, arropari bigarren aukera bat emateko aukera ematen du. Beraz, segi gure proiektua irakurtzen, eta ez ahaztu,

EROSOTASUNA ETA AZKARTASUNA BERMATZEN JARRAITU NAHI BADUZU,
ETA OUTFIT BERRITZAILEAK NAHI BADITUZU... DESKARGATU

WEARME!!!

